

R. M.^a DE AZKUE.—*Diccionario Vasco-Español-Francés*. Introducción de Luis Michelena. Euskaltzaindia. Bilbo, 1984 (30 x 21 zm., 1219 orr.).

Euskaltzaindiak Azkue zenaren *Diccionario Vasco-Español-Francés* birargitaratu du. Hiztegi honek euskal kulturaren bereganatu dituen ospea eta itzala ez dakienik ez da. Azken larogei urtetan euskaldun irakurleek, euskal idazleek eta euskalariak beren eskuetan behar-beharrezko tresnatzat erabili dute. Euskararen historian zutarri da.

Hiztegi gintzan lan sakon berri bat hasteko zorian dagoen une berean birargitaratu du Euskaltzaindiak hiztegi hau. Seme galduaren etorrera pozgarriaren bezala agurtzen du euskaltzainburuak sarreran atari gisa jarri dizkion hitzetan.

Azkueren hiztegi hau, guziok dakigunez, erabat orokorra da, euskalki eta historikoaz gainera, neurri handi batean, kritikoa ere bai. Horregatik, oraindik ere gure hiztegien artean bere edukinez aberatsena eta beharrezkoena.

Mitxelenaren hitzaurre luze bat daroa Azkuek erabili zituen iturriak ikertuz. Egia esan, aspaldi aitua zen *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue* delako lana da, zuzenketaz eta gehigarritz. Hor markatzen ditu Mitxelenak azterketa eta berrikuntzarako oinarriak, ondotik Larramendi eta Arakistainen gehigarrien aburuak bidez adiaraziz. Gainera, euskara-erdarazko hiztegiño bat du itsatsirik, Mitxelenaren azterketaren aurkibidez eta Azkue berarenaren gehigarritz. Beraz, ez da guztiz birargitaratze soila zeren 104 orrialdez gehituaz aberastua bai dator, bere iker lanez eta hiztegiñoz.

Liburua, guaflex azalez bi tomoak batean enkuadernaturik, lehen argitalpenaren neurri handi berean dator.

J. S. M.